


BERRIGARA

4. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, uztailak 19

artzantzaren
omisaldegia
okiz aldatuko da

Oporretara!!

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:

TAKOLO AUTOAK

Azpeiti Etxebidea, 2 (Eskatu edifizioa)

INAUGURAZIOKO LANPAINA HANDIA

erroyin

KONZESIONARI OFIZIAK HOBIAK



VENTANAS SAN MIGUEL

*Ventanas San Miguelekin...
denean irabaziko duzu.*


Erosotasunean irabaziko duzu.

*Aurrezpenean eta energian
irabaziko duzu.*

Isolamenduan irabaziko duzu.

Konfortean irabaziko duzu.

Ibargarai, 5 BERGARA ☎ 76 12 21



*Etorri guera!
Denean irabaziko duzu.*

ELKAR ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

**Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA**

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
T: 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

ARDUN Elkartea.

Zuzendaria:

Alex Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkorobereizibar

Ane Larrañaga

Maketazioa:

Alex Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola

Maripí Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkorobereizibar

Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Banaketa:

Tantxangorri taldea

Tirada:

4.000 ale.

Inprimategia:

Beritu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

ISS: 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

hartzeko ardurarik, ez du bere gain

Z E B E R R I D A ?

JON ANDER GARITANO


Xamatz dantza taldeko kidea

- Aritzeta abesbatza-
rekin batera jira bat
egingo duzue udan.
Zein tokitan izango di-
tuzue aktuzioak?

- Uztailaren 31n atera-
ko gara eta abuztuaren
11ra bitartean hainbat
emanaldi izango ditugu.
Oraindik ez dakigu ze-
hatz-mehatz non izango
diren, baina ziurrenik Pa-
ris, Amsterdam eta Bruse-
lan izango dira emanaldi-
ak. Gipuzkoako abesba-
tzen federazioaren bitar-
tez egin ditugu kontaktu-
ak, eta, Aritzetakoekin
batera, hiru bat emanaldi
emango ditugu.

- Zenbat lagun joan
zarete?

- 80 bat lagun izango
gara (laguntzaile eta guz-
ti) eta autobus literan go-
az. Aritzeta abesbatzako
32 lagun datoz, eta beste



guztiak Xamatzekoak
izango gara. Pare bat gau
autobusean egingo ditu-
gu, eta gainontzekoak
hoteletan.

- Zenbateko aurre-
kontua duzue?

- Bi milioi eta erdi pe-
zeta inguruko aurrekon-
tua daukagu, eta diru ge-
hiena antolatutako zoz-
keten bidez batu dugu.
Bi taldeak elkarrekin izan
gara lanean.

**"Aritzetarekin batera Paris, Amsterdam eta
Bruselan emanaldiak emango ditugu"**

I T U R R I O N E T I K

San Martin irudien ikuskizuna
otsailaren 7an estreinatuko da

Datorren urteko otsailaren 7an San Martin irudien
ikuskizuna izango da Frontoian. Otsailaren 5ean San
Martinen martirioaren 400 urte betetzen dira, eta hori
ospatzeko Udalak hainbat ekitaldi antolatuko ditu
astebukaera horretan. Ekitaldirik aipagarriena
Frontoian egingo den ikuskizuna izango da. Bertan
300 bat lagunek parte hartuko dute, eta, herriko talde
musikalez gain, aktore edo dantzariak izango dira
Miguel Gonzalez Bastidak konposatutako lana
antzezten. Orain zortzi bat urte egin zen San
Martzialgo irudien antzeko lan ikusgarria izango da
otsailean egingo dena.

E S A N
D U T E

"San Vicente de
la Barquerako
lehiaketan
koroa oso
kontzentraturik
egon zen, eta
interpretazioa
bikaina izan
zen.

Lehiaketetan
parte hartzeak
lan gogorra
eskaten du
baina, aldi
berean, Orfeoia

ondo
entrenatuta
egoten da
horrela.

Bestalde, a
capella eta
instrumentuez
lagundutako
kontzertuetako
errepertorioa
hobetzea
ezinbestekoa
da. Orain
Santander,
Bartzelona edo
Sevillako

lehiaketetara
joateko
gonbidatu
gaituzte, baina
oraingoz ez da
ezer

konkretatu.

Hala ere,
lehiaketaren
batean parte
hartzeko asmoa
daukagu"

**DAVID
AZURZA**
Bergarako
Orfeoiko
zuzendaria
EL DIARIO
VASCO



Aldizkari honek Bergarako
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jauriaritzaren Kultura
Zuzendaritzaren laguntza jaso du

**SABRINA**

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30

(Ikuslearen eguna).

**Musika Eskolako****Orkestra Sinfonikoaren**

emanaldia izango da asteazkenean gaueko 11etan Espaloian, ondoko programarekin: *5. sinfonia* (Beethoven), *Danza macabra* (Saint-Saens), *Loch Ness* (De Meij) eta *El rey leon* (Hans Zimmer) eta Elton Johnek konposatutako soinu bandaren selekzioa.

**Zinea****Sydney Pollack**

zuzendariak (*Memorias de Africa*) **Billy Wilderen** klasikoaren bertsio berri bat egin nahi izan du. **Harrison Ford** eta **Julia Ormond** aktore ezagunak aukeratu ditu *Linus Larrabee* eta *Sabrina*ren pertsonaiak lantzeko. *Larrabee* familiaren txoferraren alaba dugu *Sabrina*, eta *David Larrabee*ekin (**Greg Kinnear**) maiteminduta egon da txikitatik. Tartean familiaren negozioa zuzentzen duen *Linus* azalduko da...

Udal Musika Bandak

Artatse elkarteko ereserkia aurkeztuko du igandean 12:30etan Frontoian. Alfredo Glez. Chirlaquek eta Juan Martin Elexpuruk (letra) konposatu dute. Ondoren, *Euskeria* (San Miguel), *Ezpata dantza* (M. Glez. Bastida), *Katuska* (Soroza-bal) eta *Caribbean concerto* (Vlak) eskeiniko dira.

Deiak**Fernando Arenazaren**

margo erakusketa Donostiako Le Bistrot des arts erakustaretoan (Zubieta, 9), uztailaren 24ra arte.

Luis Laskurainen

margoak Aretxabaletako Durana aretoan uztailaren 21era arte.

Abdon Juaristiren

margo erakusketa Hondarribiko Kokoschka galerian abuztuaren 8ra arte.

Bertso afaria

ostiralean, hilak 26, Basalgon. Joxe Lizaso eta Jose Agirre bertsolariak eta Gesalaga soinujoleekin. Izen-ematea Txur-ringo, Iraho eta Mekolaldeko tabernan.

Orkestra Sinfonikoaren

kontzertua asteartean, hilak 23, gaueko 11etan Mutrikuko Parrokian.

Ogia

Igandea 21: Ogizun.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 19:** Puy/Morales.
- ▼ **Zapatua 20:** Estella/Corcuera.
- ▼ **Domeka 21:** Estella/Azkoaga.
- ▼ **Astelehena 22:** Mozos/Ruiz.
- ▼ **Martitena 23:** Puy/Morales.
- ▼ **Eguaztena 24:** Estella/Corcuera.
- ▼ **Eguena 25:** Puy/Azkoaga.

**PINTURAS BERGARA S.L.**

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK

- APAINKETARAKO PINTURAK
- ERROTULOAK

Aranerreka, 32 behea BERGARA. Telefonoa eta faxa: 76 11 40

Santa Marinako jaiak

Zapatuko danborradan 100 bat haur arituko dira

Asteazkenean eman zitzaien hasiera Santa Marinako jaiei eta astebukarra honetarako ere hainbat ekitaldi iragarri dira. Gaur ostirala, arratsaldeko sei eta erdietan, bolo txapelketa herrikoia jokatu da Jubilatuetan, eta gaueko 9etan, berriz, afari herrikoia egingo da Matxiategin. Antolatzaileen usteetan, 100 bat lagun bilduko dira gaurko afarian. Afa-lostean Luhartz taldeak alaitutako dantzaldia izango da Poligonoan.

Zapatuko ekitaldirik azpimarragarrienak, berriz, txirrindulari proba, waterpolo partidua, haurren danborrada, suzko erroberak eta gaueko dantzaldia dira.

100 gaztetxo inguru

Danborradan parte hartuko duten gaztetxoak (110 bat) orain dela 15 egun hasi ziren entsaiatzen. Gaztetxoek Altzasu, Pertxa eta Lasai-Tokiko martxak prestatu dituzte eta honakoa izango da



15 bat egun eman dituzte entsaiatzen.

egingo duten ibilbidea: San Martin ikastetxea, San Lorenzo, Zubieta, Masterrera, Barrenkalea, Irizar pasealekua, Ibargarai eta Matxiategi. Astelehenean, 19:30etan, danborradako parte hartzaileei merienda eskeiniko zaie Lasai-Toki elkarteetan.

Plater tiraketa

Domekan 10etan plater tiraketa lehiaketa jokatuko da Gorlan. Izenematea ordu erdi lehen-

go itxiko da, eta txapelketa herrikoia honetan 40-50 partaide izango direla espero da. Tiratzaile onentzat sari bikainak izango dira. Goizeko 11etan waterpolo txapelketa finala jokatuko da Udal Igerilekuan. Santa Marinan, ostera, Herri Meza izango da 12:00etan, eta ordu erdi beranduago Udal Musika Bandak kontzertua emango du Fraiskozurin. Aipatzekoa da Artatse elkartearen ereserkia estreinatuko dela bertan. Juan Martin Elepuruk eta Alfredo Gonzalez Chirlaquek konposatu dute. Ondoren Xamatx dantza taldearen emanaldia izango da.

Kirol iharduerak, musika emanaldiak, dantzaldiak eta danborrada, ekitaldirik nagusiak

EGITARAUA

Eguakitza, 19

- 16:30:** San Martzialera txirrindulari igoera.
- 18:30:** Bolo txapelketa jubilatuetan.
- 19:30:** Petrikol dastaketa trikitalariak alaituta. Ondoren boccia txapelketa.
- 21:00:** Herri afaria.
- 23:00:** Dantzaldia Luhartz taldearekin.

Zapatua, 20

- 12:00:** Tortila lehiaketa eta kukainak.
- 15:30:** Txirrindulari lasterketa.
- 16:30:** Xake txapelketa azkarrak.
- 18:00:** Waterpolo partidua.
- 19:00:** Kalejira trikitalariekin.
- 20:30:** Haurren danborrada.
- 23:00:** Suzko erroberak.
- 23:30:** Camp dantzaldia Talisman orkestarekin.

Domeka, 21

- 09:00:** Udal Txistulari Bandaren kalejira.
- 10:00:** Plater tiraketa Iru-biden elkarte inguruan (Gorla).
- 10:30:** Udal Bandaren kalejira.
- 11:00:** Waterpolo txapelketako finala igerilekuan.
- 12:00:** Herri meza.
- 12:30:** Salda eta txorizoa Simon Arrieta plazan. Ondoren Xamatx dantza taldearen emanaldia.
- 17:00:** Sari banaketa jubilatuetan.

Astelehena, 22

- 17:30:** Danborradan parte hartu dutenei sari banaketa eta merienda Lasai-Tokin

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Tourra bai, baina...

Txirringularitza maite duen edozein herritar eta edozein herri harro eta pozik egon daiteke Frantziako Tourraren antzeko txirringulari lasterketak bere lurak zeharkatzeagatik. Aurten lasterketa honen antolatzaileek Nafarroako eta Iparraldeko lurretan zehar burutzea erabaki dute, ia-ia guztiok kirol polit honetaz gozatu ahal izateko. Ez dago arazorik.

Herri antolatzaile bat. Herri anfitrioi bat, lasterketa, zaletasuna, denok ongi pasatzeko dibertsioa. Zalantzarik gabe amets polita da, amets zati bat, amets horren alde lagun asko borrokatzen ari dira eta lehenago beste batzuk ere aritu dira borrokan. Baina, ametsa baino ez da.

Errealitatean herri antolatzailea ez da estatu zapaltzailea baino. Bere jendearekiko eta beste herriekiko zantpatzailea da. Gure izaera eta nortasuna ukatzen dituen estatua da. Euskal herritar askori Euskal Herrian bizitzeko eskubidea galera zi dieg estatua. Estatu espainiarrarekin batera euskal herritarren kontrako politika hiltzailea eraman duen estatua. Etekin ekonomikoak eta politikoak lortzeko jendea erabili behar duen estatua da.

Horrela zaila da gonbidatua sentitzea. Estatu frantsesa eta espainola, guardia zibila, gendarmeak, erregea..., herri honetarako zer diren bi egunetan ahaztea zaila baita.

Eta jakina, ezin gara ezeren anfitrioiak izan herria izateko eskubidea ukatzen digutelako. Ez da posible gure herrian Tourra ongi etorria izatea, gu anfitrioiak ez bagara. Estatu frantsesa eta espainolaren artean Euskal Herria deituriko errealitatea dagoela norbaitek ezkatuta nahi duelako, eta hori onartzeko prest ez gaudelako.

AITOR ARANZABAL (HBKO ZINEGOTZIA ETA TXIRRINDULARI -ESKASA- OHIA)

Auzoetako diruak

Aurreko Berrigara batean, Udalak Bergarako auzoetan gastatzen duenari buruzkoa irakurri eta gero, zela gelditu isilik? Bergarak ia herri txikien adinako 4 nekazari giroko auzo izateaz gain (Osintxu, Angiozar, Ubera, Elusu), beste hainbat nekazari auzo ditu (Elorregi, Basalgo, San Juan, Goi-auzoa, San Miguel, San Blas...) eta horrek herriari nortasun berezia emateaz gain, hor bizi direnak ere herritar osotzat hartzea eskatzen du. Ez da ordea hala gertatu PNVk gobernatutako aurreko legealdian; gastu guztia herri erdialdean zentratuta, auzoekiko utzikeria nagusi, auzotarrak 3. mailako biztanle bezala sentitzeraino... Pribilegiatuak bailitzan hitz egitea... ez dago onartzerik.

1.- Legealdi honen hasieran auzo-alkateek auzoetan urteetan egiten ari diren eskakizunak azaldu zituzten, gehienak oinarriko azpi-egiturei buruzkoak (ura, argia, bideak...). Udalak, horiek batu eta irizpide zehatzik gabe, Batzordean lehenetasunak aztertutako barik, komeni edo ahal zituenak egiteari ekin dio. Beraz, planifikaziorik gabe.

2.- Egia da lanik gehienak brigadaren bidez egin daitezkeela, eta ordua da hori egi bihurtzeko, behin eta berriz azpimarratu behar izan baita brigadaren lehenetasuna beti kaleak izan direla, alde horretatik utzikeria egon dela, berehala egiteko lan asko urteetan egin gabe daudelarik.

3.- Auzoetako protestei erantzunez, aurrekontu osotik inbertsioetarako diruak gutxi direla diozu. Zergatik? Bergarak ahal zuena kontutan hartu gabe, kalean zentratutako gehiegikerietan gastatu delako, eta orain guztiok ordaindu behar gestio desegoki horren ondorioa. Iaz auzo guzti- etako inbertsioetarako 10 milioi nano egonda ere, ia 3 milioi ez ziren gastatu. Hala ere, ura, argiak eta bidetan gastatutakoa kontatuz ia 42 milioi gastatu omen zirenez, horko biztanle kopurua hartuta asko dela diozu. Urteetan auzo-alkate izanda, diru faltaren arazoa ondo jasandako zine-

gotziak hori esatea ere! Imajina ote dezake inork Bergarako kalean ur edo argi gabe egotea, etxera iristeko moduko bide bat ez izatea? Horixe baino ez dute eskatzen auzotarrak! Bizitzeko moduko kondizio minimoak izatea. Jakina da distantzieko kostoak gehitzen dituztela, baina ez ahaztu auzotarrak Bergarako lur-sailen %90etik gora gestionatu eta zaintzen dutela, herriari izugarriko aportazioa egiten diotela eta urruti bizitzek, nekazaritza landuz, baduela berez nahiko sakrifizio. Kontutan hartzekoa, biztanleen % 10 izatek % Ora ez pasatzeko.

4.- Plangintzarik gabe bada ere, badirudi atzera geldituta zeuden zenbait obra txiki egiten ari direla. Egitekoen zerrenda luzea oraindik, baina pozten gara gutxienez zerbait mugitzeaz. Baina badira hainbat gai, baserri eta auzoak bizerazteko derrigorrezkoak, aurrera eramateko dirua baino gehiago borondate politikoa behar dutenak, HBK eskatuak eta oraindik erantzun gabeak. Besteak beste, zerbitzuen antolaketa egokia (bide-ertzen garbiketa, zaborrak eta saneamentu gaia, akabatutako ganaduen bilketa...), baso publikoen gestio eta antolaketarako plan teknikoak prestatu, azoka berriaren dinamizazioa eta berezian antolaketa, nekazal lurren klasifikazioa eta antolaketa lantzen hastea, baserriarrentzako informazio interesgarria zabaldu eta diru-laguntzak lortzeko bideak erretzu..., gazteak auzoetan gelditzeak etxebizitzaren gaia landu eta dinamizatu (ea zenbat urte dauden Angiozarren zai).

Beraz, auzo biziak nahi baditugu, har ditza- gun kontutan beharrak eta has gaitzen planifika- tzen zer egin daitekeen urtez urte dauzkagun errekurtsu guztiekien (dirua, langileak, politikoak...

**AITOR ARANZABAL ETA MAITE ARISTEGI
AUZOETAKO BATZORDEKO ZINEGOTZIAK,
HBRN IZEEZNEAN**

Tiira biraka



**Berrigara
oporretan**

Aste honetako oporren aurretiko azken Berrigara duzue. Beraz, datorren astetik aurrera eta irailaren 6ra bitartean ez da Berrigara kaleratuko. Ondo pasa oporretan.

Salaketa


San Martzialgo bidean, ermitan, kantinan, txabolan eta bertan ipinitako taulatuan eta baita goiko trenbideko zentral zaharrean eta Zurraga gainean egindako pintadak salatu ditu Udal Gobernu Batzordeak.

Bazkaria Artatsen

Udal Musika Bandak Fraiskozurin igandean emango duen kontzertuan Artatseko ereserkia estreinatu ondoren, bazkaria izango da Artatsen.

**Mikel Osa
Huescan**

Aste honetan espetxetik irtetzekoa zen Mikel Osa preso bergarra abendura arte ez da kalera irtengo. 1989an atxilotu zuten eta astearte honetan kaleratze data ipini zioten. Bere familiartekoak Huescara joan dira Mikel jasotzera, baina abendura arte ez dela kalera irtengo erantzun diote kartzelako buruek.



Bi urte barru Arrizuriaga jauregia laga eta eraikiko den komisaldegi berrira joango da Ertzaintza.

Beheko Estazioan eraikiko da Ertzaintzaren komisaldegia

Beheko Estazioaren eta barianteko zubiaren artean dagoen lursailetan eraikiko da Ertzaintzaren komisaldegi berria. 1998. urtean komisaldegi berria eraikitzen denean, Arrizuriaga jauregia laga egingo dute ertzainek eta Bergarako Udalaren eskuetara pasako da. Udalak Arrizuriaga jauregia kultur zerbitzuetarako erabili nahi du eta jauregia inguratzen duen parkean auditoriuma egiteko asmoa du.

Begarako Udalak eta Jaurlaritzako Barne sailak Gabonaz geroztik izan dituzten lau bileren ondoren lortu da akordioa. Herrizaingo sailaren eta Bergarako Udalaren arteko hitzarmena uztail bukaeran sinatzea espero da. Bai gobernu taldea, eta baita oposizioa pozik azaldu dira lortu den akordioarekin.

Hitzarmenaren zirriboto-

roan jasotzen denaren arabera, Bergarako Udalak Beheko Estazioaren eta barianteko zubiaren artean dagoen lursaila emango dio Barne sailari, eta honek Arrizuriaga emango dio Bergarako Udalari. Horrez gain, Bergarako Udalak 70 miloi pezeta inguru eman beharko dizkio Barne sailari. Kostu horri aurre egiteko, autobus geltokiaren aurrealdean dauden etxeak bota ondoren geratuko den lursaila etxeak eraikitzeko erabiliko da, eta, beraz, bertan egitekoa zen auditoriuma ez da egingo. Zorua birkalifikatzerakoan ateratzen den diruarekin ertzaintzak Arrizuriaga lagatzearen Udalak ordaindu beharko duenaren zati bati aurre egingo zaio.

Komisaldegi berriak hiru solairu izango ditu, eta Deba Garaiko komi-

saldegi garrantzitsuena izango da.

10.000 metro karratu

Akordio honekin Bergarak 10.000 metro karratuko parkea erreperatuko du. Auditorium berria egin eta parkea egokitzeko ideien lehiaketa publikoa plazaratuko du Udalak. Jauregian, berriz, Musika Eskola bertan jarri daitekeela komentatu da.

Ibargarai berria

Arrizuriaga parkeko hormak bota, auditoriuma eraiki, 10.000 metro karratuko parkea egokitu, eta Ibaragarai inguruan etxe berriak eta Ertzaintzaren komisaldegi berria eraikitzen direnanean herraren itxura erabat aldatuko da. Mariaren Lagundiko eraikuntza berritik Ibaragarairaino kale bat zabalduko da.

HILDAKOAK
Aste honetan ez dugu hildakoen berri jaso.

JAIOTAKOAK
Maider Santorcuato Labaien Uztailak 12

Jaiak Antzuolan

Astebukaeran, Antzuolako jaien barruan, hainbat ekitaldi izango dira. Gaur, ostirala, 20:00etan, Deba Garaiko dantzariak Zuberoako dantzak eskeiniko dituzte. 22:30etan Joselu anaiak taldearekin dantzaldia izango da, eta 23:00etan rock jaialdia Utikan eta Piperrak taldeekin. Zapatuan, 10:00etan, Txistularien Bandarekin diana, 11:00etan Bergarako Udal Musika Bandarekin kalejira, 12:00etan umeentzako tailerrak plazan, 13:00etan Bandaren kontzertua Zurrategin ("Naparra"ren omenez Wagneren *Tanbauser* eskeiniko dute), 18:00etan Mairuaren alardea, 19:00etan herriko dantzarien saioa, eta 19:30etan Tirri-Tarra fanfarreak alaitutako kalejira. 22:00etan Udal Pelotalekuaren inaugurazioa egingo da, eta jarraian afizionatu eta profesional mailako binakako partiduak jokatuko dira; 22:30etan Egan taldearekin dantzaldia izango da eta gauerdian Tirri-Tarra fanfarrearen ikuskizuna. Domekan, 9:30etan, txirringuluri proba jokatuko da, 10:00etan Juan Jose eta Patxiri eskeinutako jaialdiaren hasiera eta autobusean Langraitzera bisita egingo da, 12:00etan Incansables txarangarekin kalejira, 12:30etan Iparraldeko herri kirolak Zurrategi plazan, 13:30etan lehiaketetako sari banaketa, 14:30etan herri bazkaria, 16:30etan ponyak eta sokamuturra eta Juan Joseri eta Patxiri eskeinutako kantu eta bertso saioa Zurrategin, 18:00etan kotxe telegidatuak, 19:00etan kale antzerkia, 22:00etan Trabukorekin dantzaldia, 23:30etan su artifzialak eta 2:30etan jaien amaiera Incansablesekin.



Elixamendiko ermita, egoera kaskarrean dagoen herriko ermitetako bat.

Santa Marinako kanpandorrea eta lau ermita berrizteko bidean

Eraikinen egoera gertutik ikusi zituen kultura diputatuak

Koruko Aizarna kultura diputatuak Bergara bisitatu zuen asteazkenean, herriko hainbat ermita eta Santa Marinako kanpandorrearen egoera gertutik ezagutzeko. Victoriano Gallastegi alkatea, Koldo Pereira kultur zinegotzia eta Xabier Aranburu udal museologoaren laguntzaz, Elixamendi, Santa Katalina, San Juan eta San Mateiko ermitetan izan zen Aizarna. Bere hitzetan, *"ikusi ditugun lau ermitak egoera txarrean daude, eta pena da balio haundiko ondarea direlako. Elixamendin azterketa geotekniko bat egingo da lurraren arazoa dagoelako, eta, bestalde, Artelekuko arduradunekin hitzegino dugu, bertan hainbat berriztapen lan egin daitezkeen aztertzeke"*.

Santa Marinako kanpandorreak jasandako erosioa eta bertako erretabloa ere aztertu zituen Koruko Aizarnak. Diputatuak azaldu zuenez, *"Diputazioa zorretan dago Santa Marinarekin, herriak zaindu baitu eliza. Oraingoz ez dugu dirurik, baina Santa Marinaran egin beharreko berrizte lanek lehen-tasuna izango dute etorkizunean"*. Santa Marinako erretabloa egoera kaskarrean omen dago eta udal museologoak adierazi zuenez barroroko garaiko erretablorik onenetakoa da. Santa Marinako berrizte lanek 30 milioi pezeta inguruko aurrekontua izango dute. Koruko Aizarnak urte amaieran Diputazioan plan zuzentzaile bat egiteko asmoa dagoela aurreratu zuen.

Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Movillaseko lantegiak botatzen duen keagatik protestak

Urteagako bizilagunek arazoa konpontzeko eskatu dute

Urteagako bizilagun talde batek bere protesta azaldu du Movillas S.A. enpresako depuradorak botatzen dituen usain eta keagatik. Miguel Angel Lozanok, bizilagunen izenean, aspaldiko kontua dela esan digu; "orain dela lau urte depuradora horren kontrako lehen protestak azaldu genizkien bai enpresari eta bai Udalari, eta ordutik ez da ezer egin. Dagoeneko 120 sinadura batu ditugu, eta arazoa konpontzeko zain gaude oraindik, kaltetuenak Urteagako bizilagunak gara eta". Udan usainaren arazoa areagotu egiten omen da, eta bizilagunek arazoa lehen bailehen konpontzea eskatu dute, "batzutan leiboak itxi behar izaten ditugu eta". Behin baino gehiagotan udaltzainen presentzia eskatu dute udaltzainek bertan izaten diren

usain eta keen akta jaso dezaten.

Ignacio Castells Movillaseko arduradunetako batek, berriz, gai honen inguruan bestelako bertsioa dauka. Bere hitzetan, "gaia konpontzeko bidean dago. Ezin dut ukatu zenbaitetan usaina egoten dela, baina abal dugun guztia egiten ari gara gero eta usain gutxiago izateko. Depuradoran lanean dibardugu, eta hemendik bizpaburu hilabetera gaia konponduta izango dela uste dut. Erreforma hauek denbora eskatzen dute; aireatzeko sistema, adibidez, Suediatik ekarri behar dugu. Baina ingurugiro auditoria bat egin digute, eta esan dezaket egingo dako lana bide onetik doala".

Udalak, berriz, lehen bailehen neurri zuzentzaileak hartzeko eskatu dio Movillas enpresari.



Movillas S.A.k Urteagan duen lantegiko depuradora konpontzen ari dira.

Jubilatuena irteera

Jubilatuena ostiralean, hilak 26, Bizkaiko kostara joateko irteera antolatu dute. Goizeko 9etan izango da irteera eta Gernika bisitatu ondoren, bazkaria Bermeon egingo da. Bazkalostean San Juan de Gaztelugatxe eta Bakio bisitatu, eta itzulera arratsaldeko 7etan egingo da. Izen-ematea (2.400 pezeta) Jubilatuena egin daiteke. Argibideak 76 21 40 telefonoan.

Basalgon jaiak

Santiago jaiak ospatuko dituzte datorren uztailaren 24tik 28ra bitartean Basalgon auzoan. Asteazkenean, hilak 24, 19:00etan jaien hasiera egingo da kanpai jotzearekin, eta etxaleroak jaurti eta txopoa ere jasoko dira. Ondoren, 21:00etan, afaria izango da. Ostegunean, Santiago eguna, 11:00etan Meza Nagusia, eguerdiko 12etan Basalgoko txirindulari igoera, 12:30etan pelota partiduak jokatuko dira, 17:30etarako bikoteen dantza txapelketa iragarri da eta 18:30etan herri kirolak. Bertan Egi, Iriarte eta Mintxeta harrijasotzaileak arituko dira lehian, eta jarraian, idi probetan, Basalgoko Lesarrik eta Mutrikuko Gorixok neurtuko dituzte indarrak. Ondoren erromeria izango da Xapre-Zarra soinujoleekin. Ostiralean, ordu batean meza, ondoren *luncha* eta 21:00etan bertso afaria. Bertan Jose Lizaso eta Joxe Agirre bertsolariak, eta Gesalaga anai-arrebak izango dira. Igandean, berriz, ordu batean meza auzoko hildakoen alde, 14:30etan auzo bazkaria Gesalaga soinujoleekin, eta bukatzeko, erromeria.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE



ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

Oporren atarian

Kotxea puntuan jartzeko gomendioak

- Herritar askok, udan, kotxea ohi baino gehiago erabiltzen dutenez, zer gomendatuko zenieke kotxea puntuan jartzeko?

- Onena urte guztian zehar kotxea zaintzea izaten da; eta hori egiten bada udan ez da arazorik izango. Hala ere, bada kotxeari kaso gehiegirik egiten ez dion jendea eta horiei, kanpora irten behar badira, erroberak, frenoak, olioak, filtroak eta direkzioa aztertzea gomendatuko nieke. Errepidean arazorik ez izateko horiek zaintzea ezinbestekoa izaten da.

- Udan, beroagatik, gurpilei arreta berezia eskaini behar zaie?

- Erroberak gastatuta dauden ala ez begiratu behar da lehenbizi. Horrela izanez gero, beroarekin ez dute errepidea ondo hartzen eta frenatzerakoan gurpila errebertatzeko arriskua izaten da. Gainera erroberen dibujoa gastatuta izatea zigortuta dago. Erroberak behar den bezala egon

behar dira eta presio egokia izan behar dute, segurtasun haundiagoa izateko. Kubiartaren neurriak zerikusia du presioarekin: zenbat eta zabalagoa izan, bolumen haundiagoa izango du, eta haize gehiago sartu beharko za-



JESUS MARKIEGI
(Mekanikoa)

io. Aurreko erroberetan 2 eta 2.5 kilogramo artean egoten da, eta atzekoek, berriz, 2 kilogramo inguruko presioa eskatzen dute. Beraz, errobera bakoi-tzari bere presioa dago-

"Kanpora irten aurretik erroberak, frenoak, olioak, filtroak eta direkzioa aztertu behar dira"



Errepidean arazorik ez izateko onena errebisioa egitea da.

kio, eta bere neurrian eraman behar dira erroberak leku guztietan berdin gatzatzeko.

Gaizki alineatuta baldin badaude, bestalde, errobera barrutik edo kanpotik gastatuko da. Ondo dagoen errobera batek 40.000 kilometro inguru aguantatzen du; gaizki baldin badago, 25.000 kilometroekin errobera barik geratzeko arriskua izaten da. Era berean, suspentsioa ere zaindu beharra dago, bestela kotxeak estabildadea asko galtzen du eta.

- Zeintzuk dira udan egoten diren aberiak?

- Korrea apurketak eta horrelakoak. Errebentoiak ere izaten dira, eta horiek oso arriskutsuak dira.

- Kotxean zer eramatea komeni da?

- Alternadorea eta bonbaren korrea, erre-pestoko errobera, olioak ere garrantzitsuak izaten da... Baina ura eta olioak ondo kontrolatzea komeni da, batez ere.

- Eta kanpoan aberiaren bat izatekotan nora jo behar dugu?

- Edozein tailerretara. Gaur egun ondo prestatuta daude guztiak.

- Jendeak ondo zaintzen du kotxea?

- Ez, normalean ez. Askok kasorik ere ez diote egiten kotxeari, baina badira asko zaintzen dutenak ere.

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

Senideak:

"Familiarren zatiketa bultzatu nahi dute"

Azken aldian euskal preso politikoaren sakanaketari eta hurbilketari buruz asko hitz egin da. Estatuko kartzeletan espetxeratuta dauden herriko hainbat presoren senideekin egin dugu berba gai honen inguruan.

- Herriko zenbat preso daude gaur egun estatuko kartzeletan?

- 13 preso, 2 deportatu, Panaman eta Venezuelan, eta errefuxiatu bat. Huescan dauden Kanito eta Osa -azken hau aste honetan libre utzi behar zuten, baina ez da kalera irten- dira gertuen daudenak, eta besteak Ceutan eta penintsulan zehar sakabanatuta daude.

- Dispersioak nori egiten dio kalte gehiago, presoan senideei ala presoek?

- Dispersioaz berba egiten denean, distantziari buruz hitzegiten da batez ere, horregatik hurbilketaren kontua. Baina, distantzia, hau da, presoak bisitatzeko egin behar dugun kilometro piloa, ez da arazo nagusia. Une honetan dispersioaren ondorio latzenak barruan daudenek jasaten dituzte, oso sakabanatuta daude-

lako. Kasu batzuetan kartzela batean preso bakarra dago, eta horrek zeharo isolatua egotea suposatzen du.

- Eta zer ondorio dakar horrek?

- Horren ondorioa, luzera begira, presoaren zoramena edo egoera psikiko larria sortzea da. Sakabanaketak, bestalde, kanpoarekiko komunikazioak zailtzen ditu, senideak ez direlako denera heltzen eta karta bidezko komunikazioa ere eten egiten da, askotan eskutitzak hiru hilabetez erretentitzen direlako. Gurasoekin euskaraz berba egitearren, berriz, telefono deiak egitea debekatzen zaie askotan...

- Beraz, urrunago edo hurbilago egotea ez da arazo bakarra.

- Ez, euren artean sakabanatuta egoteak eta bakarrik egoteak min haundiagoa egin die presoek. Esate baterako, agresio fisikoak jasan izan dituzte eta errezagoa da bakarrik dagoen preso jipoitzea, elkarrekin dauden bost preso politiko egurtzea baino. Bestalde, Ceutan dagoen preso bat jipoitzen badute, abokatua heldu orduko hiru egun pasa dira...



"Euskal Herriko kartzeletan hemengo presoentzako tokia badago".

Osasun asistentziarik eza, ikasketak egiteko zailtasunak..., ere hor daude. Horregatik esaten dugu dispersioaren arazo nagusia ez dela senideek kilometroak egin beharra edo dirua, presoek sortzen zaien egoera baizik. Guretzat inportanteagoa da preso ondo ikustea 1.000 edo 500 kilometro egitea baino.

- Irtenbidea?

- Gobernuak 37 preso Euskal Herrira gerturatu dituela esan du. Horietaatik 15, Mikel Osa esate baterako, dagoeneko kalean egon zitezkeenak dira, beste batzuk gaitxotasun sendaezinekin daudenak, Orensetik Oviedora ekarri dute beste bat... Esan behar da dispersioarekin PSOE, PP, PNV eta Eak egoera jasanezina apoiatu dutela. Azken helburua presoak errenditu eta bergizarteratzea izan da. Orain, ostera, presoak eta senideak asko sufritzen dutelako, eta giza alderdia kontutan hartuta, Euskal Herrira hurbildu behar dituztela esaten digute. Dena dela ez gara asko fidatzen, gobernuak esan

baitu hurbilketa selektiboa egingo dela, presoan familiartekoak banan-banan aztertuko dituztela eta Gestorekin harremanak badituzte puntu negatiboa izango dela. Uste dugu senideei zuzendutako fase berri bat dela hurbilketaren kontua, familiarren zatiketa bultzatu nahi dutela. Beldur gara, horrek barruan daudenei eragingo dielako.

- Euskal Herrian ez omen dago tokirik bertako presoentzat.

- Legeak dio presoak beren herritik ahalik eta gertuen egon behar direla. Euskal Herrian 4 kartzela daude, eta nahiz eta esan Euskal Herriko preso guztiak biltzeko tokirik ez dagoela, guk egin ditugun azterketen arabera guztientzako tokia dago, preso politiko zein preso komunitat. Beraz, presoak Euskal Herrira ekartzea, eta elkarrekin egotea eskatzen dugu. Dena den, berdin digu 200 kilometro gerturatzea euren bizi baldintzak berdin jarraitzen badute eta orain arte inork ez digu ziurtatu preso bizi baldintzak hobetu egingo direnik.

"Hurbilketarekin presoan bizi baldintzak hobetu egingo direnik ez digu inork ziurtatu"

Urteko saria

Oporretan egunerokotik ihes egin nahia

Iritsi da, edo ailegatzear dago buzoa, ordenadorea, eskoba... eta urtean zehar hainbeste buruhauste ematen digun lana, egun batzuetan behintzat, alde batera lagatzeko sasoia; ondo merezitako oporrez disfrutatzeko garaia. Batzuk hemen geratuko dira; beste batzuk kotxea trastez bete eta kanpingera joango dira; lanik egin nahi ez duenak hotela aukeratuko du, eta nekatzeko gogo handiagoa dutenak bidaiari antolatua egingo du.

Orain dela bi urte Kubarako edo Panamarako egon zen joera. Aurten badirudi ez dagoela "balako modarik". Ecuador eta Bel bidaiari agentzietan adierazi digutenez, ez dago besteen gaitetik gailentzen den leku bat. "Costa Rica, Indonesia, Kenia... leku guztietara doa jendea; aurten ez da toki bat bereziki nabarmentzen. Penintsulan geratzen den jenderik gehienak kostaldera, eguzki bila, joateko joera du.



Oporretan gustokoen atseden hartzea eta hondartzara joatea dugu.

Aurten begoaldera, Cadiz zein Almeriara asko saldu dugu, eta baita Saloura ere; Port Aventura dela eta, jende asko joango da Saloura".

Uztailean gero eta gehiagok oporrak

Orain dela urte batzuk jende guztiak oporrak

abuztuan izaten bazituen ere, gero eta gehiago dira uztailean hartzen dituztenak. "Irailean oraindik ez du jende askok hartzen, baina uztailean bai. Aurten lantegi gehiagok hartu dituzte oporrak uztailean, eta guk igerri dugu" adierazi digute Ecuador bidaiari agentzian. Gehienek ho-

tela aukeratzen dute. Apartamentua, batez ere, gazteek edo familiek hartzen dute, jende asko dagoenean. Badirudi, azkenaldian jende gehiago joaten dela oporretara agentzia bidez. "Lehen bidaiari agentziaz egitea garestiago zela uste zuen jendeak, eta joan behar zuen lekura zuzenean,

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

bere kasara joaten zen; orain, berriz, konturatu da hotela-eta merkeago ateratzen dela agentzia bidez joanez gero".

dira norberak nahi duen egunetan izaten, oso egun konkretuetarako ateratzen dira".

Azken orduan prestatutako bidaiak

Agentzietan esan digutenaren arabera, ia jenderik gehienak azken orduan pentsatzen du nora joan. Ecuadorrekoen esanetan, *"bidaiara joan baino hilabete edo hilabete eta erdi lehenago mugitzen da jendea, eta hori oso berandu da. Pentsatu behar da Estatuan ia gebienek abuztuan izaten dituztela oporrrak, eta denek orduan atera nahi dutela. Kanpora, urruti samar, joan nahi dutenek aukerarik onena urtarrilean edo otsailean izaten dute, eta orduan mugitzen dira".*

Bel bidaiaria agentzian adierazi digutenez, asko eskaintzen zain egoten dira. *"Urrun joaten direnek Aste Santu ostean bartuta izaten dute bidaiaria. Izaten dira nora joan ez dakitenak; berdin izaten zaie batera edo bestera joan, eta, hortaz, eskaintzen zain egoten dira".* Eskaintzak izaten dira, eta nora joan berdin izanez gero, merezi dute. *"Ez dira agentziek erreklamo modura jarritako tentazioak. Beti iritetzen da zedozer, kupoak betetzeko izaten baitira. Hori bai, beti ez*

Toki berriak eta atsedena

Jendeari galdezka ibili ondoren konturatu gara agentziek diotena hala dela, hau da, azken orduan askok antolatzen dituzten oporrrak. Ane Iturraldek ez daki zer egingo duen, *"lanaren arabera da"*. Beretzat oporrrak dira: ondo pasatzeko eta eguneroko bizitzarekin deskonektatzeko modua, eta norberak nahi duena baino gehiago, ahal duena egiteko sasoia. *"Iaz Kuban izan ginen. Lekuak eta jendea ezagutzeaz gain, atsedeen hartu genuen. Niretzat onena da, leku, kultura eta jende berria ezagutzea, eta atsedeen hartzea, oreka hori lortzea"*. Anek dioenez, oporretan aldatu egiten da, alaiago eta gustorago egoten da. Oporretatik bueltatzea, berriz, ez zaio batera gustatzen. *"Beti esaten dut: 'berriz hemen, betiko zuloan, betiko martxan... eta urte guztia gainean!'"*.

Bere ustez, opor egiteko ez dago kanpora joan beharrik. *"Kotxea izanez gero, hemen gauza asko egin daitezke: hondartzara zein jaietara joan, mendian zehar egunpasak egin... Primeran pasatu daitezke"*.

Bergararik egunpasak

Herrian geratuko direnak asko dira. Jesus Uribeberria Bergaran geratuko da, baina harantz honantz batean ibiliko da. *"Oporretan eta urte guztian egiten dudana oso desberdina da: sekula ez dut etxean jaten, eta hemen geratu arren, etxean ez naiz denbora askoan egoten, egunpasak egitera egunero irtezen naiz"*. Lotara etxera

etorri arren, aurtengo Bilboko eta Donostiako Aste Nagusiak ez ditu galduko. Bere ametsa Oslo eta Viena ezagutzea da, hala eta guztiz ere, hemen geratzeak ere opor egitea esan nahi duela dio. *"Badirudi kanpora joan beharra dagoela, baina hemen ere ondo pasatzen da; kontua urteko erritmoa apurtzea da. Nik ez dut ulertzen, oporretara joan ahal izateko, kredituak direla*



Agentzien arabera aurtengo ez dago inorako modarik, denetarik aukeratu du jendeak.

 **DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
 Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Iturkintz Berri
INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa
Amillaga, 1 (B Pabiloia) ☎ 76 28 04 BERGARA

Gipuzkoarrak gehien gastatzen dutenak

Eroski kontsumitzaileen aldizkariak 208. alerako oporrei buruzko inkesta bat egin du Hego Euskal Herrian, Kantabrian eta Errioxako zenbait familiatan. Horren arabera, %37 dira udan oporrak hartuko dituztenak. %70k atsedenerako, eta 15 eguneko oporrak hartzen dituzte. Hondartza da jendeak gustokoen duena, eta Estatutik ez da irtetzen. %17 baino ez da bidaiaria agentzia bidez antolatzen duena. Familien %64ak

eta, urte guztian bankuekin zorpean bizitzea. Kanpora ez joatearren ez da ezer gertatzen".

Ez da krediturik eskatzen

Oporretara joateko Ane Iturraldekin ere inoiz ez luke krediturik eskatuko. "Oporretan diru gehiago gastatzen dut, dunda barik, baina urtean ez naiz oporretara joateko aurreratzen ibiltzen, eta krediturik ez nuke inolaz ere eskatuko!".

Oporretara joan ahal izateko kredituak eskatzen direlako ustea oso zabaldua dagoen arren, Kutxa eta Euskadiko Kutxako zuzendariak esan digutenez, jendeak ez du krediturik eskatzen. Kutxakoaren esanetan, "kalean zabaldua dago-

kotzez bidaiatzen du, %13ak autobusez. Oporrak dituzten familien %30ak bere etxean pasatzen ditu, %25 hotelera joaten da, eta kanpinga %13k erabiltzen du. Gipuzkoari dagokionez, inguruko herrialdeek baino %25 gehiago gastatzen dugu gastronomian; kulturean, berriz, oso gutxi; hegazkinez gehiago bidaiatzen da; eta bidaietan, bataz beste, %40 gehiago gastatzen dugu, gutxi gora behera 212.000 pezeta.

en zurrumurru bat besterik ez da. Noizean behin eskatzen dira; urtean

bizpabiru egiten ditugu, eta hori ez da kontutuan hartzeko moduko kopu-

rua; esan daiteke ez dela egiten".

Lankide Aurrezkian ere berbera esan digute: "oporretarako krediturik ez da eskatzen; egiten dena da Visaren muga handitu. Normalean bilerko diru kopurua 200 mila pezetakoa bada, oporretara joateko muga 400 mila edo 500 mila pezetan jartzen da, eta gero, egindako gastoa plazoka ordaintzen da. Hori, kreditu bat da, eta garestia. Baina jendeak asko erabiltzen du, erraz tramitatzen da eta".

Ecuador agentziak ere badu kreditu zerbitzua bidaiak ordaindu ahal izateko, baina oraindik inork ez du erabili.



Hemen geratzen denak inguruko herrietara egunpasak egiten ditu.

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

AZPEITXI

Aranerreaka, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

Pakita Urkaregi

PSIKOLOGOA

Zer dira oporrak?

Oporrak eguneroko bizitzan egiten den eten bat dira. Eta garrantzitsua da eten hori. Gero, bakoitzaren izaeraren arabera, bakoitzak ikusiko du eten edo gelditze hori nola erabili. Hemen geratzen direnentzat nahikoa da eguneroko bizitzako stressa alde batera laga, eta lasaiago ibiltzea. Urtean zehar egiten ez diren gauzak egiteko erabiltzen da: irakurri, paseatu, mendira joan, hondartzara joan... Eten edo denbora huts hori disfrutatzea litzateke. Badira aldaketa behar dutenak, eta zedozer berria ezagutzeko ilusioz kanpora joaten direnak. Beste batzuek urtean zehar ikusi ez dituzten lagunekin egoteko aprobetxatzen dituzte...

Bergarar batek esan digu, bere bizilagunak ingurukoei esan ziela kanpora zihoala, eta Aste Santua etxean sartuta pasa zuela. Badirudi opor egiteko kanpora atera beharra dagoela.

Umeekin garbi ikusten da: kontsumoko gizartearen eragina ondo isladatzen dute, eta kanpora ateratzeko dexente presionatzen dute. Kanpora ez badira joaten eskolan zer esango duten pentsatzen dute. Eta behar hori gurasoek, telebistak, eta, oro har, gizarteak transmititu dietelako dute. Eta, jakina, oporretan ez dago kanpora atera beharrik.

Oporrek stressa sor dezakete?

Oporrek eten bat izan beharko lukete, baina patxadaz hartu beharrean,



"Oporrek eten bat izan

beharko lukete, baina

patxadaz hartu

beharrean, konturatzeke,

presiopean murgiltzen

gara"

konturatzeke, presiopean murgiltzen gara. Moda da, eta oporretan ibili egin behar da, ezin da geldirik egon.

"Bakoitzak egiten duen aukera balora dezala, eta atera diezaiola etekina; hori egiten ikasi behar dugu"

Urtean zehar robotak bezala antolatuta bizi gara, eta oporretan denbora libre izatean, berriz nola bete edo antolatu beharrak antsiedadea sor dezake. Oporrak antolatzean, hortaz, stressa sor daiteke. Bestalde, bidaiara ateratzean ere stressa egon daiteke, trafikoa dela eta. Opor egunetan deskantsatzen da, baina bueltan beste egun txar batzuk izan daitezke.

Oporrak aurretiko eta ondorengo sindromea ere badago.

Batzuk nekatuta bueltatzen dira etxera; beste batzuk oporretatik bueltatutakoan inguruan dutenaz konturatzen dira, eta dutena baloratzen dute. Bestalde, lanera bueltatzeak, deskonpentsazio batzuk sor ditzake, pereza handiak sortzen dira; baina lanean gustora ez dabilenari, langiro ona ez duenari, lankideekin harreman onak ez dituenari... gertatzen zaio. Hala ere, adaptatzeko ahalmen handia dugu, eta eguneroko bizitzara berriz egokitu egiten gara.

Oporrik gutxien emakumeak izaten du?

Emakumearentzako onena hotela da. Kanpingera edo etxe batera joanez gero, lan egin behar du, beraz hotela da onena. Dena den, badaude laguntzen duten gizonezkoak ere.

Oporretan zer da garrantzitsuen?

Bakoitzak egiten duen aukera balora dezala, eta etekina atera diezaiola; hori egiten ikasi behar dugu.

Hainbeste eskaintza dago, asko gure aukeren gainetik, eta horrek ere frustrazioa sortzen baitu.

Pepelu

Ilepaindegia


Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

LONBIDE
OINETAKOAK




Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

Hondartza nudista batera joango zinateke?



Angela Fernandez

Bai, zergatik ez. Nik ondo ikusten dut horrelako plaiak egotea eta guztion jarrerak errespetatu behar direla uste dut.



Jose De Pedro

Ez daukat edaderik horretarako baina gazteago izango banintz joango nintzateke. Baina bakoitzak, ez badu inor molestatzen, eskubide osoa dauka nahi duena egiteko.



Rosi Alonso

Ez zait inporta baina ez nintzateke joango, ez dut uste luzitzeko moduko gorputzik dudarik. Niri estetika gordetzea gustatzen zait baina bakoitzak berea.




Alex Sanchez

Ez dut uste, lotsagatik beharbada. Ondo ikusten dut jendea horra joatea eta plaiia normal batean egotea, baina plaiia nudista batean hobeto egongo lirateke beharbada.



Usoa Mendikute

Ez, nahiago dut plaiia normal batera joatea, baina ondo pentsatzen zait jendea joatea. Halere, behin ere ezin duzu esan ez duzula iturri honetatik edango.



Jose Mari Anduaga

Ez, ez dut uste. Ez nintzateke gustora egongo, baina bestela ondo ikusten dut horrelako plaiak egotea.

Dekorazioa-altzariak

San Pedro plaza z/g. Telefonoa eta faxa: 76 43 51

Sukaldeko altzariak

San Pedro plaza z/g. Telefonoa eta faxa: 76 34 00

TB, bideoa, Hi-fi soinua

Barrenkalea, 6. Telefonoa eta faxa: 76 25 96



BILTOKI

BILTOKIk bere bezeroei jakinarazi nahi die **ABUZTUAN OPORRENGATIK ITXITA egongo dela. KONPONKETAK EGITEKO zerbitzu ofizialen TELEFONOAK hauek dira:**

TB, bideoa eta soinua:	☎ 10 82 75 - 70 14 98
Elektragailuak:	• Otsein-Candy: ☎ 19 29 23 - 902 / 10 01 50
	• Fagor-Aspes: ☎ 79 22 34 - 79 89 97
	• Aeg: ☎ 46 01 11
	• Corbero: ☎ 45 55 64
	• Zanussi: ☎ 33 22 22
	• Miele: ☎ 21 65 13
	• Phillips-Whirpool: ☎ 908 / 77 85 10
	• Liebherr: ☎ 45 55 64 - 45 36 04



Panazea unibertsala

Gazteriaren eginbehar bakarra etorkizunerako akademikoki prestatzea den garai hauetan, bat baino gehiagok bere ikasketen baliogarrtasuna zalantzan jarri duela zin egingo nuke.

Amaren titia askatu berri, aurrerantzean pertsona heldu eta burujabe izateko prestatuko gaituen horrekin lehen hartumana gertatu ohi da. Une horretan bertan, denbora aurrera doan heinean zailtzen joango den bidaiaria teoriko bati hasiera ematen diogu, makina bat urteren buruan INEMen pareko ilera amaigabearen aurkitzeko.

Gaur egun, langabezia aurkitzen diren herritarren artean, unibertsitate titulu bat esku artean dutenak omen dira gehiengoak.

Akaso, guzti honen errudun orain dela urte gutxi gizar-teaz jabetu den pentsaera intelektuala izan da. Akaso, semeak iturgin izatearen beldurra.

Gaur, XII. mendearen ateetan, gazteoi estudiantzearen ardurak neuronak zanpatu dizkigu. Tamalgarriena konbenzimendu eza da, askori, perito, kazetari edo mediku izan beharrean, trapezista, margolari edo titiriteru izatea gustatuko bailitzaiok.

Baina ez da posible. Gure eginbeharrekoarekin kunplitu behar dugu eta gurasoak kontentu utzi.

Baina, zer egingo diogu ba? Unibetsitatea "panazea unibertsala" bezala saldu nahi izan digute eta guk, inuxenteok, erosi egin dugu.

Maria URZELAI



Amorrua

Orain dela hilabete batzuk orrialde hauetatik salatzen genuen UNEDen desmantelamendua gero eta aurreratua go dagoela ikustean bergararrok, atzera, aukera bat galdu dugula.

Ez da nahikoa izan herritarren nahia behin eta berriz azaltzea, ezta eztabaida akademiko sakon bat proposatzea ere. Guzti honen gaitetik guretzat arrotzak diren interesak garaitu dute, beste batzuen iritzi eta proiektuek gureak baino indar haundiagoa zutela erakutsi digute eta, azkenean, gure interesek defenditzeko oso agintari ahulak ditugula onartu beharko dugulakoan nago.

Ez da fundamentuzko inolako esplikaziorik eman, eta ezta emango ere, ez baitago. Ez dute herriko agintariak behar bezala Bergarak zuen eskaintza akademiko eder hau defenditu. Ezta gutxiago ere. Eta ez diogu herritarrok arazo eta inposizio lotsagarri honi behar bezala aurre egin. Ez jaun andreok. Ez.

Gaur Bergarako UNED atzokoaren karikatura penagarria da, eta penagarriagoa izango oraindik ere. Gaur Bergarako seme-alabek -eta ingurukoek ere- aukera bat gutxiago dute euren ikasketak aurrera ateratzeko, eta Bergarako herri osoak UNEDen inguruan sortu izan diren hainbeste iniziatiba eta sinergiak galdu egin ditu.

Aurreko idazki batean egoera honen aurrean lotsa besterik ezin genuela sentitu esaten banuen ere, arazoak konponbidean jarri beharrean okerragora egin duela ikustean amorrua besterik ezin dela sentitu deritzot.

Martin GARITANO

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Moketak eta tapizatuak

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA



LAGUN ARO

ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)


Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxe: 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00

■ Drogaren kontra

Ostiralean "**Drogaren aurkako Nazioarteko Eguna**" ospatu zen Bergaran. Hankapalo eta trikitilarien laguntzaz 100 bat lagun inguruk herriko kaleetan zehar giza kate bat egin ondoren, partehartzaileak Plazan bildu ziren, eta alkateak "Ikas dezagun menpekotasunik gabe bizitzen" izenburuko manifestua irakurri zuen. Aipatutako testuan prebentzio neurriak hartu edo droga eta jokuarekin zerikusia duten legeak betetzearen garrantzia azpimarratzen da. Ekitaldiari amaiera emateko **Xamatx** dantzataldea eta **Aritzeta** abesbatzaren saioak izan ziren. Datorren urtean bailarako beste herri batean ospatuko da drogaren aurkako eguna.



■ 50 urte apaiz

Serapio Azkarate 76 urteko antzuolar apaizak apaizgintzan urrezko eztaiak bete ditu. Orain 50 urteko uztailaren 7an eman zuen Serapiok **lehen meza Antzuolan** eta urrezko eztaiak ospatzeko fetxa eta toki berean meza eman, eta ondoren familiarrekin bazkaria izan zuen. Serapiok urte askotan **Urgulleko ermitan** meza eman izan du. Organujole bikaina, orain ahal duen guztietan Gotzaitegira laguntzera joaten da. Zorionak!!

■ 20 urte Udaletxean

Bergarako Udaletxeko langileek despedida bazkaria eskeini zioten ostiralean **Lorentzo Laskurain** langileari Zumelaga jatetxean. Lorentzok 20 urte eman ditu Udaletxean administrari lanetan. Ostiralean 40 lagun bildu ziren Zumelagan Lorentzo omentzeko; bazkalostean **Josuren Murgizuren** koadro bat eta **Arantzazu Loidiren** bertso batzuk oparitu zituzten. Guztiek Lorentzori eskeinitako bertsoak abestu zituzten. Bestalde, ezkondu berri den **Iñaki Ugarteburu** kirol teknikariari ere landara eder bat eman zioten. Zorionak!




AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH



ZURICH TALDEA ASEGURUAK

UNIBER

HISPANIA

Industria
homikuntzak




Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 76 47 89
Santa Cruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

■ **Turistentzako informazioa**

Bergarara hurbil daitezkeen turistei zuzenduta, Bergarako Udalak **ibilbide artistikoen gida** kaleratu berri du. Aipatutako gidak 12 orrialde ditu eta intereseko 10 punturi buruzko informazioa emateaz gain, auzoak eta udalerrinari buruzko datuak jasotzen dira bertan. Azalpenak bost hizkuntzatan ematen dira: euskaraz, katalanez, gazteleraz, ingelesez eta frantsesez. Inguruko herrialdeetan banatzeko gidaren 4.000 ale kaleratu dira, eta Udal Turismo Bulegoan 200 pezetaren truke eskuratu daiteke. Era berean, Udalak promoziorako 10.000 postal kaleratu ditu. Ea orain turistak hona etortzera animatzen diren...



Zertan dihardute ba?



Iñaki Irizar

30 urteko biologo bergararrak Eusko Ikaskuntzaren beka bat eskuratu du beste lau lagunekin batera, urtebetez, Euskal Herriko ugaztun txikien aberastasuna aztertzeko. Eusko Ikaskuntzak, *Jakitez* programaren barruan, hiru ikerlari talderen proiektuak lagunduko ditu. Iñaki Irizarren lan taldeak 1.650.000 pezeta jasoko ditu, eta abuztuan hasiko da lanean. Iñakiren hitzetan, *"aurretik elkar ezagutzen genuen eta Enrique Castien iruñarra izango da proiektuaren zuzendaria. Zientzia ikerketa polita dela uste dut"*.

■ **Berrigararen bisitari**

Joan zen astean Udaleku irekietako gaztetxoak bisitari izan genituen Berrigararen. **Xipizaro ludotekak** antolatutako udalekuan ari diren haurrek Berrigara nola egiten den jakin nahi izan zuten eta, kazetarien antzera, era guztietako galderak egin



zizkiguten. Batek baino gehiagok Berrigararen lan egiteko asmoa azaldu zuten. Hauek bai fitxaje onak... Argazkian Berrigarako erredakziora hurbildutako taldeetako bat.

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Carmen Garate

**Plastikoak orokorren. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...**

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

Javi Badiola

Hainbat urtetan goizeko zerbitzuan lan egin ondoren, Javi Badiola 42 urteko plazentziarra Anbulategiko urgentzia zerbitzuan ari da orain. Horrez gain, abeslari eta txirrinuzale amorratua dugu.

- Urgentzia asko izaten dira Anbulategian?

- Egoten dira bai, kolpeak, zauriak...

- Zein sasoiatan lan gehien?

- Jaietan eta horrelakoetan.

- Hipokondriako asko dago Bergaran?

- Ez, baina badira batzuk.

- Nola hasi zinen Aritzetan?

- Betidanik gustatu izan zait abestea, eta orain 12 urte sartu nintzen, Izaskun Labaienek animatuta.

- Beste talderen batean abestu duzu?

- Sasoi batean Aritzetan, Orfeoian eta Alai taldean abesten nuen, eta orain Aritzetan eta Alai taldean ari naiz.


- Dutzan abesten duzu?

- Lehen bai, orain ez.

- Piezarik gustokoena?

- Rantxerak izugarri gustatzen zaizkit.

- Bizikletan walk-mana



“Betidanik gustatu izan zait abestea eta orain 12 urte sartu nintzen Aritzetan. Rantxerak izugarri gustatzen zaizkit. Hilero, bizikletan, 1.000 Km. inguru egiten ditut. Udan ez dakit oraindik nora joango naizen”

erabiltzen duzu?

- Ez, hori barik nahiko arrisku dago...

- Noiztik bizikletan?

- Txikitan hasi nintzen, polioa izan ondoren.

- Lehenengo bizikleta?

- Bai, lau bat urterekin Abelux bat izan nuen.

- Orain zenbat bizikleta daukazu?

- Bi, Vitus bat eta Zeus bat.

- Zenbat kilometro egiten dituzu astero?

- Hilero 1.000 inguru, urte guztian.

- Bizikletak ez dira udarako beraz...

- Ni behintzat haizeak bakarrik geratzen nau.

- Ibilbiderik gustokoena?

- Udana aldera.

- Mendian gora ala lautadan gustorago?

- Mendian gora asko sufritzen da, lautadan nahiago.

- Igotako mendirik nekezena?

- Lagos de Enol.

- Tourreko zenbat kinielatan hartzen duzu parte?

- Batean. Eta korredore bakarra daukat, Brasi.

- Tourra zuzenean ala telebistatik?

- Telebistatik.

- Nola geratuko da podiuma?

- Indurain, Rominger eta Riis.

- Zer egingo duzu oportetan?

- Neskarekin norabait joango naiz, baina ez dakit nora...

BIZKOTXOAK. ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Fuen-
girolan. ☎ 76 05 37.

Iruñean pisua osatzeko
persona bat behar da.
☎ 76 17 14 (gauzez).

Ganbara salgai San Pedro
kalean. ☎ 76 24 05.

Pisua alokairuan hartuko
nuke. ☎ 76 43 22.

Ganbara bat behar dut
bizitzeko. ☎ 76 39 65.

Pisua salgai Bolun. 100
metro karratu. ☎ 76 22 72.

Pisu bat konpartitu nahi
dut. ☎ 76 08 00 (Ismael).

Estudioa alokatzen dut
Benidormen. ☎ 76 23 43.

Apartamentua aloka-
tzen da Benidormen.
☎ 74 16 57/74 20 31.

Pisua alokairuan San Anto-
nion. Egoera onean.
☎ 76 21 39.

Errioxako Benimar kan-
pinean modulo bat salgai.
Urte amaierara arte ordain-
duta. ☎ 76 16 49.

Osintxun buhardilla bat
salgai. ☎ 76 15 36.

Baserria salgai Elgetan.
☎ 12 09 67/12 71 10.

Pisua salgai edo alokairuan
Barrenkalean. ☎ 78 70 30.

Pisua alokatzen da Zu-
biaurren. ☎ 76 13 85.

DENETARIK

Olivetti fotokopiadora sal-
gai. ☎ 76 51 23 (gauzez).

Denda-remolkea salgai.
☎ 76 37 82.

Hiru gelako kanpina erosi-
ko nuke. ☎ 76 41 28.

Zaldi bat konpartitu nahi
duzu? ☎ 76 30 01 (Rene).

Imar denda-remolkea sal-
gai. ☎ 76 58 62 (gauzez).

Ford Fiesta kotxea sal-
gai. Egoera onean.
☎ 76 33 26.

Erloju bat galdu dut. Mari
Lurdes izena eta fetxa ba-
tekin. ☎ 76 32 95.

Inportazio kotxeetarako
fetxa erreduzituak egiten
dira. ☎ 76 47 85 (Jaione).

Ohe artikulatu automatiko
berria salgai. ☎ 76 37 24.

Imar karro-denda salgai.
☎ 76 59 56 (gauzez).

Mendiko bizikleta sal-
gai. ☎ 76 51 55.

Taxi plaza eskualdatuko
nuke. ☎ 76 07 31.

Kawasaki motorra (SS-
AJ) salgai. ☎ 79 48 14.

Sango denda-remolkea
salgai. ☎ 76 33 92.

Ford Sierra kotxea (SS-
AD) salgai. ☎ 76 33 10.

LANA

Ingeniaritza ikasleak
klaseak ematen ditu.
☎ 76 11 11.

Mate eta fisika klaseak
ematen ditut. ☎ 76 47 85.

Ingeles klaseak.
☎ 76 40 89 (Gemma).

Ingeles klaseak ematen
dira. ☎ 76 04 65.

OHO, aleman eta italiano
klaseak ematen ditut.
☎ 76 12 38 (Irene).

Abuztuaren 15etik 30era
esperientziadun neska bat
behar da Peñiscolan haurrak
zaindu eta etxeko lanak egi-
teko. ☎ 76 57 32 (gauzez).

OHO eta BBBko klaseak
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Etxeko lanak egiten ditut
(orduka). ☎ 76 48 39.

OHO klaseak ematen di-
tut. ☎ 76 24 42 (Amaia).

OHOko 1.go mailatik 5.era
klaseak ematen ditut uz-
tailean. ☎ 76 45 51.

Emakume euskalduna
behar da haur bat zaintze-
ko. ☎ 76 02 59.

Etxeko lanak egin eta
haur bat zaintzeko neska
euskalduna behar da.
☎ 76 06 69.

Neska batek haurrak zain-
du edo etxeko lanak egin-
go lituzke. ☎ 76 13 46.

Kimikako 5. mailan ari
den ikasle batek lan egingo
luke. ☎ 76 20 04.

Emakume euskalduna
behar da haurrak zaindu
eta etxeko lanak egiteko.
☎ 76 30 20.

SEKULAKO AUKERA*Bulego osoa salgai!!*

- Erropentzako armaria.
- Artxibategia.
- Venus serieko mahaia, metalezko kalitatezko mahai batekin osatua, moderno, erakargarri eta sendoa, Pastformide melaninaz estalitako egurrez egina.
- Olivetti Linea 90 idazmakina.
- Egurrezko jarleku biragarri eta etzangarria, eusteko bost puntu dituen.
- 2.300 P.D. modeloko Noman kalkulagailua.

☎ 76 49 41

**REMENTERIA
Altzariak**Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

**Gallastegi
Jostundegia**

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85

**EDEL
TAPIZDENDA***Etixerako artikuluetan aukerarik
haundiena eskaintzen dizugu***Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltzak,
edredoia, etab.**Zure bulegoetan giro atsegina behar
baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik
egokienaren berri eskatzea.**Bidekurutzeta, 14 BERGARA**

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIONDO
OTALORA
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

Jaietan gaude



Zatoz Antzuolara!!

Antzuolako Udalak jai zoriontsuak opa dizkizue!!

- UZTAILAK 18, EGUENA: 22:30: **KOXKA.**
- UZTAILAK 19, EGUAKITZA: 22:30: **OSELU ANAIK.**
- UZTAILAK 20, ZAPATUA: 18:00: **MAIRUAREN ALARDEA.**
22:30: **EGAN.**
- UZTAILAK 21, DOMEKA: 22:00: **TRABUKO.**

Ipintzako Adin Mugarik Gabeko Futbol Txapelketa



Arloteak eta Amilotx taldeen arteko finala gaur

Arloteak/Oilagorra eta Amilotx

taldeek jokatuko dute gaur arratsaldeko 7:30etan Agorrosin futbolzelaian txapelketaren finala. Arloteak/Oilagorrek 2 eta 0 irabazi zion Mongatxurra taldeari. Arloteak/Oilagorrek talde sendoa eta jokalaririk erabakiorrak dituela erakutsi du. Amilotxek 2 eta 1 irabazi zion Bildurbarek Opel/Lam taldeari. Lehen zatian 2 eta 0 aurreratu ondoren, 2. zatian nahikoa sufritu zuen garaipena lortzeko. Halere, Amilotxek defentsa bikaina eta gogorra du eta Arloteak/Oilagorrek zail izango du

golak sartzea. Agorrosinen jokatuko da partidua, eta Ipintza baino haundiagoa denez, Arloteak/Oilagorra taldearentzat hobe izango da, teknika haundiagoko jokalaririk dituelako. Bestalde, BERRIGARAK golegile onenari ematen dion saria nork jasoko duen erabakitzeke dago oraindik. Finala jokatu aurretik, Angiozar taldeko Ibai Elorza (8 gol) lehen postuan dago, baina ez da ahaztu behar Amilotx taldeko David Maestrek eta Marcos Alonsok seina gol, eta Arloteak/Oilagorra taldeko Jabi Carrascosak 5 gol dituztela.



Bitxor Agirrebarrena
ANTOLAKETA BATZORDEA

Zer moduz joan da txapelketa?

Oso ondo, ez dugu arazorik izan, eta talde indartsuenak finalerdietara heldu dira. Hasieratik faborito zirenak heldu

dira, baina Mongatxurra finalean ez izatea sospresatxoia izan da.

Antolaketa mailan arazorik izan duzue?

Ez, baina jende gehiago behar dugu arbitrazeko edo linier lanak egiteko. Txapelketarekin jarraitzeko oso garrantzitsua izango litzateke jende gehiago izatea antolaketa batzordean.

Pozik txapelketak izandako erantzunarekin?

Bai, joan zen urtean baino talde gehiago izan dira eta jendea

ezin da kexatu jokatu dituen partiduekin guztira talde bakoitzak gutxienez 7 partidu jokatu baititu. Gainera bi taldeetan berdintasun handia izan da; azken partiduetaraino ez baita erabaki zeintzuk sailkatuko ziren. **Datorren urterako zerbait hobetu daiteke?**

Jende gehiago antolaketan sartzea eta ez betikoak izatea, azkenean jendea aspertu egiten baita. Halere, aurten sartu diren antolatzaile berriek oso ondo erantzun dute.

Nesken futbito txapelketa

■ EMAITZAK

BOKAGE-GU GEU	0-6
POTZU TA ZAPABURUAK-BLUE STARS	7-0
BOST TABERNA-POWER RANGERS	2-4
BLUE STARS-POWER RANGERS	0-9
GU GEU-POTZU TA ZAPABURUAK	1-2
BOKAGE-BOST TABERNA	1-5

■ PARTIDUAK

OSTEGUNA, 25

FINALERDIAK

LARUNBATA, 27

FINALA

OHARRA: BERRIGARAK EZ DU BERE GAIN HARTZEN NESKEN FUTBITO TXAPELKETAN EGON DAITEZKEEN ALDAKETAK. HEMEN JARTZEN DITUGUN DATUAK ANTOLAKETA BATZORDEAK EMANDAKOAK DIRA.

■ GOLEGILEAK

- 11 GOL:** UXUE LAZKANO (POWER RANGERS).
- 9 GOL:** AINHOA LARRAÑAGA (POTZU TA ZAPABURUAK).
- 9 GOL:** AINHARA LETE (POTZU TA ZAPABURUAK).




Potzu Ta Zapaburuak taldea Ane Olabide, Nekane Gabilondo, Oihana Beristain, Ainhoa Larrañaga, Amaia Aperribai, Nagore Irazola, Jasone Larrañaga, Maitane Arizabaleta, Ainara Lete eta Nerea Elkoroberezibarrek osatzen dute. Azkenengo futbito txapelketaren irabazleak dira eta orain arte ikusitakoaren arabera berriz ere txapela lortzeko aukera dute.

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. POWER RANGERS	22	9	33	15
2. POTZU TA ZAPABURUAK	21	9	34	14
3. BOST TABERNA	13	9	23	24
4. GU GEU	11	9	17	12
5. BOKAGE	6	9	2	25
6. BLUE STARS	6	9	10	32

Ander Berraondo Realetik Aloñara

Ander Berraondo, 18 urteko futbolari bergararrak, azken urteetan Realeko jubeniletan aritu denak, talde txuri urdina laga eta Aloña Mendirekin 3. mailan jokatu du datorren urtean. Beraz, Ramon Agirrezabal, Ibon Larrañaga eta Ibon Agirre bergararren batera jokatu du. Xabier Arregik, oster, Oñatik taldea utzi eta erretiratu egingo da. Aloña Menditik Bergarara etorriko dena Ernesto Izagirre aurrelari oñatiarra izango da. Esan dezagun, BKEko futbol talde nagusia asteartean hasi zela entrenatzen Goio Arrieta atxabaltarraren (argazkian) aginduetara. Azkenik, Agurtzane Lete BKEko futbolariak Arrasaterekin jokatu du Euskadiko ligan datorren urtean.




Waterpolo txapelketa zapatu eta domekan igerilekuetan

Bergarako waterpolo taldeak Santa Marinako txapelketa jokatu du asteburuan. Bergararren Bilboko Ademar, Gasteizko Menditxo eta Hernaniko taldeen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Menditxo eta Hernani taldeek Bergarako taldearen maila berberean jokatu dute aurtengo denboraldian. Bilboko Ademar taldea da txapelketako mailarik onena duena eta hasi aurretik irabazteko faborito nagusiak dira. Halere, bergararren ahalginak egingo dituzte txapelketa irabazteko eta joan zen asteburuan lortutako Gipuzkoako talde onenaren txapela defendatzeko asmoa dute. Izan ere, joan zen asteburuan bergararren Gipuzkoako txapela lortu zuten, Hernaniri 8 eta 4 irabazi ondoren.

Denboraldi irregularra

Santa Marinako txapelketarekin denboraldari agur esango diote waterpoloko jokalariek eta aurtengo denboraldia nahiko irregularra izan dela esan digute taldeko jokalariek. "Denboraldi basieran jokalaria gutxi genituen lesioengatik eta jendea kanpoan ikasten



Bergararrak, Bilbo, Gasteiz eta Hernaniko taldeen kontra arituko dira.

zegoela eta emaitza kaskarrak lortu genituen. Halere, denboraldi amaieran jendea errekupe-ratu egin da, eta emaitza hobekak lortu ditugu. Azkenean, 8 taldetatik 5. postuan bukatu genuen, eta uste dugu hobetu genezakeela" esan digute waterpoloko jokalariek.

13 jokalaria

Gaur egun 13 jokalaria daude taldean, eta gehiagoz izatea komeniko litza-tekeela esan digute jokalariek. "Jendez nahiko gaizki eta justu gabiltza. Gainera datorren urtean jokalaria gehiago doaz kanpora ikastera eta zailtasun gehiago izango ditugu. Era berean,

bebetik ez dator jokalaririk igerilari bakar bat baitago eta beste herri batzuetan ere ez dago waterpoloan jokatzeko prest dagoenik".

Bainurik ez

Txapelketa larunbatean hasiko da arratsaldeko 6etatik aurrera Agorrosingo kanpoko igerilekuetan jokatu diren finalerdiekin eta finalak igandean goizeko 11etan jokatu dira. Txapelketa kanpoko igerilekuetan jokatu denez, Udaleko Kirol Zerbitzuan adierazi digutenez, zapatuan arratsaldeko 5etatik domekako ordu bata arte ezin izango da bainurik hartu kanpoko igerilekuetan.



**Matxiategi
Elektragintza
C.B.**

**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA**
Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94

Siaska

**Dena zure
haurrarentzako**

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

TXINPARTAK

Santa Marina txirrindulari lasterketa

Zapatuan arratsaldeko 3:30etan lehen eta bigarren mailako jubententzako txirrindulari lasterketa jokatu da. Bergararik Lokatzako Sumofic eta Caravanas Oñate taldeek hartuko dute parte. Azkenaldian emaitza bikainak lortu dituzten Jon Unamuno eta Ander Markiegi izango dira irteera puntuan.

5 domina bergarar igerilarientzat

Eneritz Muguruzak, Agurtzane Crespok eta Ainhoa Alberdik 5 domina lortu zituzten joan zen asteburuan Ordizian jokatuako Gipuzkoako igeri txapelketan. Muguruzak, zilarrezko bi domina lortu zituen 50 metro krol eta 100 metro tximeletan, eta brontzezkoa 100 metro krolen. Crespok, berriz, brontzezkoa eskuratu zuen 200 metro tximeletan, eta Alberdik zilarrezkoa 400 metro krolen.

Boccia txapelketa

Gaur, ostirala, 19:30etan boccia txapelketa jokatu da jubilatuetan. Besteak beste, Aritz Bikuña eta Agustín Toledok hartuko dute parte.

Karlos Baleztena

Burdinezko gizona

Karlos Baleztena antzuolarra txirrindularitza laga ondoren triatloia egitera pasatu da. Dagoeneko 6 urte daromatza igeriketa, txirrindularitza eta korrika batzen dituen kirola egiten. Ekainean Tenerifeko ironmanean, 4 kilometro igeriketan, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro korrika, parte hartu zuen.

- Zer moduz Tenerifeko ironman proban?

- Nahiko gaizki, maratoni erdian erretiratu egin bainintzen. 22. kilometroan baba bat irten zitzaidan ohinean eta lastima izan zen. Bigarren postuan nindoan, eta urte guztian lasterketa prestatzen aritu ondoren...

- Zer da zailena, igeriketa, bizikleta ala maratonia?

- Zailena maratonia da, bukaeran dagoelako. Maratoiaren aurretik 6 ordu egin dituzu igeriketan eta bizikletan.

- Lasterketaren atal batetik bestera pasatzea nekezena dela esan ohi dute.

- Jendea gaizki ibiltzen da, baina ni nahiko ondo. Gaztetan ziklokrosa egin nuen eta nahiko ondo moldatzen naiz.

- Zela hasi zinen triatloian?

- Bizikletan afizionatuetan ibili nintzen, eta aspertu egin nintzen. Triatloi bat ikusi nuen eta gustatu egin zitzaidan. Bergaran klub bat sortu zen eta 26 urterekin hor hasi nintzen.

- Orain zure kontura zabilta?

- Atletico San Sebastian taldean nabil. Bidaia ordaintzen didate, eta prestaketa fisikoaz Zumarragako Santi Perez arduratzen da.

- Nola prestatzen duzu ironman bat?


- 8 hilabete lehenago hasten naiz. Hasieran ordu bat edo, eta denbora pasa ahala denbora gehiago pasatzen dut; bukeran egunean 6-8 ordu inguru sartzen ditut. Egunean bi kirol tartekatzen ditut: egun batean igeriketa eta bizikleta, eta hurrengoan igeriketa eta maratonia tartekatzen ditut.

- Asko zaindu beharko zara, ezta?

- Txarrena ordu asko eskatzen duela da. Aurtengo eguerdian fabrikatik ordubete lehenago irten izan naiz entrenatzeko, eta gero arratsaldez berriz. Duela bi urte Holandan egin nuen ironman baterako goizeko 6etan Oñatiko igerilekura joaten nintzen entrenatzera. Gero 8etan lanera, eta arratsaldeko 6etan berriz entrenatzera.

- Ironmanaren ondoren zer egiten duzu?

- 10 orduko probaren ondoren apurtuta bukatzen duzu, eta hurrengo 15 egunetan atsedena hartzen dut.



"Lasterketa baino lehenago, egunero 6-8 ordu entrenatzen naiz".

"10 orduko probaren ondoren, apurtuta bukatzen duzu"



Argazkiak: Jauregi "Altzeta"

Oxirondo elkartearen sorrera

Oxirondo Zubietako elkarteak 1966ko ekainaren 26an zabaldu zituen ateak eta aste honetan elkarte sortu zuen koadrilaren argazkia ekarri dugu, elkartearen eguna Santa Marinako jaietan ospatzen delako. Aipatzekoa da, era berean, Alkartu-Nai sortzeko ideia Oxirondotik sortu zela 1970ean. Oxirondo elkarteko bazkideak pelotazale amorratuak dira eta sarritan pelota jaialdi bikainak antolatu dituzte. Hona hemen argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Jose Irazabal, Luis Madariaga, Iñaki Zelaia, Jose Luis Larrañaga, Angel Azkarate-Askasua, Pedro Garmendia, Felix Perez, Juan Iturbe, Iñaki Eguren, Jose Luis Akizu, Iñaki Azkarate, Tomas Eguren, Armando Gallastegi, J. Ramon Inza, Candelario Zangitu, Jesus Elkoro, Txomin Garitano, Roberto Aranzabal eta Antonio Gisasola.

Makurtuta: Jose Imaz, Jose Alberdi eta Josu Eguren.

Aurrean: Iñaki Gabilondo, Balentin Gantxegi, Hilario Gorriti, Juanito Moreton, Juan Cruz Bengoa, Bixente Garcia, Javier Amenabar, Imanol Sorondo, Justino Verdugo (aurreratuta), Joakin Zurutuza, Felix Eguren, Jesus Ruiz de Azua eta Antonio Juaristi.

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga
JATETXEA


ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

SEBASTIAN IMAZ



Milagros eta Sebastian. 26 urte lanean. Aranerrika, 1. ☎ 76 32 67

JOSE LUIS LETURIA




Mari Angeles eta Jose Luis. 34 urte lanean. Artekale, 5. ☎ 76 11 30

LUIS MARI REZOLA



Luis Mari eta Margari. 11 urte lanean. Matxiategi, 7. ☎ 76 17 63

IGARZA



Alicia eta Jabier. 23 urte lanean. Irizar, 3. ☎ 76 14 12

Bedelkarreko harategiak



Herritarren zerbitzura!!

JOSE MANUEL ZURUTUZA




Jose Manuel. 10 urte Arrasaten eta 20 Bergaran. Urteaga, 9. ☎ 76 08 68

Amaia eta Ion Mirena.



San Pedro, 24. ☎ 76 12 23

Iosu eta Karmentxu.



Zubiaurre, 23. ☎ 76 28 76

LETURIA HARATEGIAK

LAZPIUR



Jabier eta Maritxu. Harategiak 82 urte ditu. Komenio, 2. ☎ 76 10 72

URCELAY HARATEGIA



Pello eta Arantxa. 4 urte lanean. Ibargari, 7. ☎ 76 00 45

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu 24 behea BERGARA (Gipuzkoa). Telefonoa eta faxa: (943) 76 30 57



FILA modeloa



NALIA modeloa



ONDA modeloa



OXFORD modeloa



ACQUA modeloa



SAVOY modeloa



6 URTEKO
GARANTIA



Zatoz sukalde berriak ikustera!!